

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**KONKISTA MUSULMANAREN
OSTEKO IBERIAR PENINTSULAKO
IPARRALDEKO APEZPIKUTZAK:
VALPUESTAKO APEZPIKUTZA ETA KINTILA
APEZPIZKUAREN KASUAK**

Historiako Gradua



AITOR ARMENDARIZ BOSQUE
ZUZENDARIA: JUAN JOSÉ LARREA CONDE
Erdi Aroaren Historia
2016/2017 kurtsoa

Laburpena:

Lan honen helburua bisigodoen erreinuaren desagertzearen eta konkista musulmanaren osteko Iberiar Penintsulako iparraldeko apezpikutzaren eta apezpikuen azterketara hurbiltzea da. Horretarako, bi adibide zehatzetan arreta jarriko dugu, bakoitzaren dokumentazioaren analisia gauzatuz: Alde batetik, IX. mendearen hasieran sortzen den Valpuestako apezpikutzaren kasua eta, bestetik, Kantabria iparraldean agertzen den Kintila apezpikuarena. Lehenengoa, Gaubea haranean kokaturikoa, garai honetako iturrietan dokumentatzen diren apezpikutzaren artean egonkorrenetakoa da. Bere bilakaera ondo aztertzeke aukera daukagu egoitza honen dokumentazioa bi kartularioetan, bata Gotikoa eta bestea Galikanoa, kontserbatu baita. Bigarrena, aldiz, IX. mendearen hasierako iturri gutxi batzuetan aipatzen baino ez den apezpiku bat da, bere ondarea Fistoleseko (Esles) San Vicente monastegiari oso lotua duena. Pertsonaia hau, hain zuzen ere, kronologia honetako iturrietan maiz aipatzen diren eliza eta monastegiei lotuak agertzen diren apezpiku efimeroen adierazlea da, tradizionalki egoitzarik gabeko apezpiku ibiltaritzat hartu izan direnak.

Gai hau aztertu duten ikerlari gehienek defendatzen dute Goi Erdi Aroko apezpiku hauek erreinu bisigodoaren desagertzearen ostean desartikulatutako egoitza bisigodoen tradizioaren jarraitzaile direla, ikuspuntu horretatik azalduz ere garai honetan sortzen diren egoitza berriak. Hala ere, azalpen-eredu horri jarraitu baino, lan honek planteatzen duena, bi adibide hauen azterketaren bitartez, garai honetako apezpikuen paperaren nahiz beraien boterearen oinarri materialaren nondik norakoak ulertzen saiatzea da. Horrela, monastegien bitartez prelatu hauek inguruko komunitate landatarrekin eta monastegiekin eraikitzen dituzte loturak aztertuko ditugu. Izan ere, onartzen zaien dignitateaz eta presurez baliatzen dira lurren gaineko eskubideetaz jabetzeko eta komunitate horiekin harremanak ezartzeko. Horrek erakutsiko liguke, bisigodoen garaiko Eliz-egituraketa atzean geratu arren, apezpikuak beharrezkoak izaten jarraitzen direla, beraiek bakarrik bete ditzaketelako tokian tokiko nekazarien komunitateentzat zein eskualdeko botereentzat (beste monastegiak zein kondeak) ezinbestekoak diren funtzioak. Beraz, apezpiku hauek lurralde logika propioa eta autonomia duten tokian tokiko botere bezala funtzionatuko lukete. Honakoa, aldi berean, garaiko gizartearen logikarekiko koherentea den eredu baten adierazle da.

Aurkibidea

Laburdura-zerrenda:	7
1. Sarrera: Problematikaren aurkezpena eta metodologia:	8
2. Dokumentazioaren analisia:	12
2.1. Valpuestako dossierra:	12
2.1.1. Joan apezpikuaren narrazioa eta egoitzaren sorrera	12
2.1.2. Elduararen dohaintza (864) eta Sonna eta Muninaren eta San Kosme eta San Damian monastegiaren arteko paktua (865):	16
2.1.3. Fredulfo apezpikuaren 894ko dohaintza:	18
2.1.4. Orbañanoseko San Joan monastegiko Guisando abadearen ekintza:	19
2.1.4. Justiziaren jarduera: 911 eta 919etako auziak:	22
2.1.5. San Zipriano elizaren inguruko komunitateak:	24
2.2. Kintilaren dossierra:	25
2.3. Kintilaren eta Valpuestako dossierren arteko alderaketa:	28
3. Ondorioak:	31
Bibliografia:	32
Eranskinak:	34
1. Dossierretako dokumentuen regesten taulak:	34
1.1. Valpuestako dossierra:	34
1.2. Kintila apezpikuaren dossierra:	35
2. Mapak:	36
2.1. Joan apezpikuaren presurak:	36
2.2. Fistoleseko San Vicente monastegiari egindako dohaintzak:	37

Laburdura-zerrenda:

BSM: Donemiliagako bezerro galikanoa: *Becerro Galicano Digital* (www.ehu.eus/galicano - kontsulta: 2017/03/02)

CL: Leoneko katedraleko bilduma diplomatikoa: Sáez, E. (1987). *Colección documental del archivo de la catedral de León (775-1230), I (775-952)*, León.

BV: Valpuestako bezerroak: Ruiz Asencio, J. M., Ruiz Albi, I. & Herrero Jiménez, M. (2010): *Los becerros gótico y galicano de Valpuesta*, Burgos.

DA: Asturiaseko Erresumaren garaiko bilduma diplomatikoa: Floriano, A. C. (1949). *Diplomática española del periodo Astur, estudio de las fuentes del Reino de Asturias (718-910)*, Oviedo.

1. Sarrera: Problematikaren aurkezpena eta metodologia:

Konkista musulmanak bisigodoen erresumaren egituraketaren desartikulazioa eragin zuen eta, beraz, Eliz-antolaketarena ere. Izan ere, erresumaren arkitekturaren barnean Elizak ezinbesteko papera betetzen zuen eta logika horretan apezpikuak aurkitzen ditugu. Toledoko boterearekin izandako hartu-emanaren apezpikuen ekintzan ezinbestekoa zen, *civitates*etan beraien boterearen beste oinarri garrantzitsua izateaz gain (Martín Viso, 1999: 153–158). Dena den, musulmanen etorrerak prelatuen boterearen ordura arteko oinarriarekin amaitzean (Castellanos & Martín Viso, 2005: 28), Goi Erdi Aroko Iberiar Penintsulako iparraldeko apezpikuen egoera, VIII. mendetik aurrerako eraldaketen baitan, iluntasunean sartuko da. Izan ere, dokumentazio arazotsuak nabarmen baldintzatzen du apezpikuen eta beraien boterearen oinarri materialaren inguruko gure ulermena.

Horrela, garai honetako iturrietan antzinako Tarraconensis probintziaren iparraldean eliza eta monastegiei lotuta apezpiku bezala aurkezten diren pertsonaien aipamenak anitzak dira, baina askok ez dute jarraikortasunik (esate baterako, Kantabrian, Kintila (811-820) eta Antonio (863) edo, Gaztelan, Oveco (853-878), beste askoren artean (Carriedo Tejedó, 2002). Iraunkortasun handiagoa lortu eta monastegi edo eskualde zehatz bati loturiko apezpikuen segida ematen den kasuetan, aldiz, egoitzaz hitz egin da (adibidez, Valpuestako, Araba/Veleiako edo Muñoko apezpikutzak (Martín Viso, 1999: 174-178). Hala ere, egoitza berrien sorrerarekin batera, bisigodoen garaikoen jarraikortasunaren arazoa aurkitzen da. Apezpiku hauen botereaz hitz egitean planteaturiko beste arazoa espazioarekiko lotura eta beraien boterearen oinarri materialari buruzkoa da, hain zuzen ere. Beraz, guzti honen atzean arazo historiografiko sakona aurkitzen dugu.

Lan honen helburua arazo honetara hurbiltzea da eta, horretarako, aipaturiko bi problematika historiografikotan murgilduko gara: alde batetik, orokorrean, konkistaren osteko apezpikuen egoeraren arazoa bera eta, bestetik, prelatu hauen ekintzaren lurralde-proiektzioa, halaberrez presuren arazora garamatzana.

Lehenengo problematika elizgizonek eta Elizaren historiaren barnean landu da eta optika honetatik planteaturiko azalpenak XX. mendeko ikerlariengana iritsi dira. Hala, azalpen tradizionalaren arabera, apezpikuak iparraldera joango ziren bisigodoen erresumaren diozesi-antolaketaren desegituraketaren ostean. Duero arroaren despopulatzea ontzat hartzen duten autoreen aburuz (L. Serrano, G. Martínez Díez (2004: 230-232) edo J.J.

García Gonzálezek (2004: 177-179), ezegonkortasunezko testuinguru horretan, prelatuek Alfontso I. eta Fruelari jarraituko zieten *Rotense*-an kontaktzen diren razzien ostean, Asturiaseko Erresumara lekualdatuz. Horrela, “apezpiku-tradizio” bat mantenduko litzateke “birkonkista” eta “birpopulatze” prozesuekin batera aplikatuko litzatekeena. Erresuma kristauekako errege eta kondeekin batera prelatuak ere joango ziren tradizio horren ondorengo diren apezpiku-zentro ezberdinak edo, gutxienez, behin behineko erresidentziak eratuz. Zailtasun askorekin hitz egin da apezpikutzei edo diozesiei buruz, hauen lurralde proiektio mugatua dela eta (Ruiz de Loizaga, 2004: 254-257). Dena den, guztien buruan zegoen egoera hori iragankorra izango zela, azken helburua suntsituriko diozesi-antolaketaen “errestaurazioa” baitzen, Jainkoaren Erresumaren sorrera lurrean ahalbidetuko lukeena (Fernandez Conde, 2008: 349).

Asmo honek XI. mendean goren puntua lortuko luke gizarte-feudalaren ezarpenari eta Erreforma Gregorianoak bultzaturiko apezpikuen boterearen indartzeari loturik. Modu horretan, errege eta elizgizon erreformatzaileek “errestaurazioen” bitartez apezpiku-boterea kontzentratu eta birformulatuko lukete. Kasu adierazgarriena, eta guretzat garrantzitsua (geroago aztertuko dugun Valpuestako apezpikutza 1087an apezpikutza honetan barneratu baitzen), Burgoseko apezpikutzaren sorrera da, hau Okako egoitza bisigodoa “errestauratu” ostean Burgosera 1075ean lekualdatzean sortu baitzen (Martín Viso, 1999: 186–187). Beraz, “errestaurazio” horien atzean diskurtso oso bat aurkituko genuke egoitza berrien sorrera justifikatuko lukeena. Izan ere, hala berreskuratuko zen bisigodoen garaiko diozesi-antolaketa Goi Erdi Aroko apezpikuak behin behineko egoitzetan zain egon ostean.

Diskurtso hau XX. mendera arte mantendu da eta perspektiba hauen arabera egoitzarik gabeko apezpikuak edota bisigodoen garaian existitzen ez ziren egoitza berrien sorrera azaldu dira. Zentzu horretan gaia landu duten autore gehienek IX. eta X. mendeetako iturrietan aipatzen diren apezpikuak bisigodoen egoitzekin lotzera eta hauen tradizioa identifikatzera zuzendu dituzte beraien ahaleginak. Gainera, analisisien izaera positibista nabarmenetik ikerlariak dokumentazioa bere osotasunean baztertzeraz pasatu dira, batez ere Martínez Díezen tesien ondorioz. Izan ere, autore honen arabera, garai honetako monastegi txiki eta ertainetako dossierrak XI. eta XII. mendeetako faltsifikazioak izango ziren, monastegietara pasatuko jabetzen transferentzia justifikatzeko erabiliak eta beste dokumentuetako pertsonaia historikoen izenak erabiliko zituztenak (2004: 233-237).

Dena den, azpimarragarriak dira erudizio maila altua erakutsi duten A. E. Mañaricuarena (1964) bezalako lanak.

Haatik, badira mende amaieran tesi tradizionalak zalantzan jarri dituztenak eta konkista musulmanaren ostean bisigodoen garaiko egoitzen jarraikortasuna defendatu duten autoreak, besteak beste, E. Pastor (1996) edo I. Martín Viso (1999). Bigarren autore honena da konkista musulmanaren osteko Ebro eta Duero haranetako apezpikutzen inguruko aportaziorik garrantzitsuena. Martín Visiok Oka, Osma eta Calahorrako egoitza bisigodoen bilakaeraren barnean apezpiku-antolaketak konkista musulmanaren ostean izandako aldaketak aztertzen ditu, inoiz erabateko hausturarik eman ez zela defendatuz. Horretaz gain, apezpikuek tokian tokiko eta eskualdeko aristokraziarekin duten lotura aztertzen du, prelatuak hauen boterearen gauzapentzat hartuz. Hauen lurralde-proiekzioari dagokionez, “lurraldetasun lausoaren” ideia plazaratzen du. Lan honetan autore honen aportazioak abiapuntutzat hartuko ditugu.

Beste alde batetik, lanean kontuan hartuko dugun bigarren problematika historiografikoa presuraren ingurukoa da. Presura, aprisio edo *scaldo* delakoa Goi Erdi Aroko dokumentazioan agertzen den espazioaren kolonizazio eta antolakuntza sozialerako figura juridikoa da. Problematika hau gorago ere aipatu dugun C. Sánchez Albornozen tesi klasikoari oso lotua dago, Alfontso I.aren razzien ondorioz hustutako Duero haraneko eremu abandonatuen “birpopulatzeaz” ziharduena. Modu horretan, presura despopulaturiko guneen okupazioa gauzatzeko figura juridikoa izango litzateke. Gero, J.A. García de Cortázarrek eta E. Peñak (1993) hauek aztertu eta abandonaturiko eremuetan gauzaten ez zirela defendatu zuten, baizik eta komunitate landatarrek okupaturiko eta ustiaturiko lurraldeetan. Horrela, presuraren logika aurretiaz zeuden espazioen berregituraketarekin lotzen dute, akulturazio-prozesu baten zentzutik ulertuta. Berrikiago, R. Viaderrek eta J.J. Larreak (2007a) aurrekoek ideien planotik azaldu zuten figura juridiko honen interpretazioa komunitate landatarren logika sozialetik azaltzeko beharra ikusten dute. Zentzu honetan espazioaren egituratze-jardueran ekintza presorearen eta tokiko elizen arteko lotura aztertu zuten, presoreak elizen bitartez komunitate landatarretan barneratu ahalko ziren heinean. Aportazio hauek kontutan edukita, presuren azterketara hurbilduko gara apezpikuek buruturiko espazioaren antolaketarako mekanismo honen erabilpena aztertzeko.

Ondorioz, konkista musulmanaren osteko apezpikuen problematikaren sakontasuna eta lan honen ezaugarriak kontutan hartuta, arazo historiografiko honetarako hurbilpen hau bi kasu zehatzen dossier dokumentalen azterketaren bitartez egingo dugu: bata, Kantabrian, zehazki Trasmiera eta Santander aldean, IX. mendearen hasieran agertzen den Kintila apezpikuari buruzko dokumentazioaren ingurukoa; eta, bestea, Valpuestako apezpikutzako kartularioetako IX. eta X. mende hasierako dokumentuen multzoa biltzen duena. Azterketa honen helburua ez da hainbeste bi kasu hauetako prelatuen tradizioari buruz esandakoa biltzea, baizik eta iturrietan oinarrituz apezpikuen papera aztertzea. Beraz, bi problematika hauek aintzat hartuko ditugu Kintilaren eta Valpuestako dossierren bitartez Goi Erdi Aroko penintsularen iparraldeko apezpikuen ekintza, eragina eta espazioarekin duten harremana aztertzeko.

2. Dokumentazioaren analisia:

2.1. Valpuestako dossierra:

Valpuesta gaur egun Gaubeako haranean, Burgoseko probintziaren iparraldean eta Arabarekin mugan, aurkitzen den herrixka bat da. IX. mendetik 1087an Burgos-Oka apezpikutzan barneratu zen arte bertako Santa Maria monastegia apezpikutza baten egoitza izan zen, Goi Erdi Aroko Gaztelako iraunkorrena, alegia. Iraunkortasun horrek eta dokumentazioa bi kartulariotan kontserbatu izanak aukera eskaintzen digu mahaigaineraturiko problematika aztertzeko. Horretarako, IX. mende osoko eta X. mende hasierako dokumentu zehatz batzuk analizatuko ditugu garai honetan sorturiko egoitza bat aztertzeko aukera ematen baitigute: sorrera, inguruan sortzen diren eliz eta monastegiak, inguruko komunitateekin zein botere politiko erregionalekin sorturiko harremana...

Kontserbatu diren dokumentuak bi kartulario edo bezerrotan bildu ziren: Gotikoa eta Galikanoa. Kartulario Gotikoa zaharrena da eta horrela deitzen da idazkera bisigotikoz idatzi zelako X-XII. mende bitarte, baina bereziki XI. mendean. Bigarrena, galikanoa, idazkera karolinoz idatzi zen, baina idazkera gotikorako trantsizioaren adierazle da (aurregotikoa). Hau 1236an Valpuestako monje batek egindako aurrekoaren 178 dokumentuetatik 138ren kopia bat da (Ruíz Asencio, 2004: 360-366). J. M. Ruiz Asencio, I. Ruiz Albi eta M. Herrero Jiménezek (2010) egindako edizioari jarraituz, hauek dira aintzat hartu ditugun dokumentuak: 1, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11 eta 17. Ikerlari eta diplomatista gehienentzat faltsuak izanagatik baztertu ditugu 2. eta 8. dokumentuak. Agiri hauen artean bereziki dohaintzak (BV 3, 5, 6 eta 17) aurkitzen ditugu, baina, baita ere, epaileen aurrean emandako bi testigantza (BV 10 eta 11), bi paktu monastiko (BV 4 eta 7), salerosketa bat (BV 9) eta narrazio bat (BV 1) (ikus. 1.1. eranskina).

2.1.1. Joan apezpikuaren narrazioa eta egoitzaren sorrera:

Kartularioko lehen dokumentua (BV 1) 804an¹ Joan deituriko apezpikuak egindako egoitzaren sorrerari buruzko kontakizuna da. Dokumentuak kontatzen digu Joan *Ualle Conposita* deituriko leku batera iritsi zela Alfontso II.a Asturiaseko erregearen garaian. Bertan Ama Birjinari eskainitako hutsik zegoen (“*deserta*”) eliza bat aurkitu, berreraiki

¹ Editore gehienek onarturiko dokumentuaren data tradizionalaren aurrean J.J. Fernández Florezek 807ra atzeratzea proposatzen du, Ruiz Asenciok (2004: 376-379) zein Ruiz de Loizagak (2004: 260-261) zuzentzat hartzen dutena.

eta konfirmatu zuen. Ondoren, bere komunitateko kideekin batera, terminoak zehaztu zituen hiru esparrutan: lehenik, Gaubeako haranean, gero, Losako haranean eta, azkenik, Antañen (Valverde de Mirandatik gertu) (ikus. 2.1. eranskina). Hala, presuren bitartez lortutako jabetza horiek guztiak Valpuestaren eta bertako familiaren (komunitateko kideak zein pobreak, pelegrino eta bidaiariak) menpe utzi zituen. Ustezko leku hustu batera iritsi eta eliza eraikitzen duen elizgizonaren kontakizuna oso arrunta da frankoen erresuman eta, orokorrean, europar testuinguruan (Larrea & Pastor, 2012: 318). Gainera, lurralde honetan paralelismoak aurki ditzakegu Tobillaseko Avito abadearen ekintzarekin. Azkenik, dokumentua Valpuestako hurrengo garaietako apezpiku eta abadeek konfirmatzen dute, agiria hainbat belaunaldiz bizirik egon delako adierazle.

Joan apezpikua Alfontso II.aren “forua” deitua izan den kartularioko bigarren dokumentuan (BV 2) agertzen da ere, baina hau argiki faltsua da. Hala ere, badira egoitzaren sorrerari buruzko narrazioaren egiazkotasunaren aurka agertzen diren iritzi ugari. Martínez Díez (2004: 234-236) azpimarragarria da, Joanen narrazioa apokrifotzat hartzen duena, eta haren ideiekin ere García Gonzálezek (2004: 39-44) bat egiten du. Horren aurrean, A. Florianok (1949: 109-112), ñabardura batzuk alde batera utzita, dokumentu original baten interpolaziotzat hartu zuen. Zentzu horretan Ruiz Asenciok (2004: 372-376), dokumentuaren faltsutasuna zalantzan jartzen ez duen arren, ez du faltsutzat hartzen ez Joan apezpikuaren existentzia, ez Valpuestako “birpopulaketa”. Horrela, faltsifikatzailea egoitzaren tradizioa ezagutuko luke edo beste dokumentu batean oinarrituko litzateke. Are gehiago, S. Ruiz de Loizagak (2004: 262-263) zalantzarik gabe baieztatzen du egoitzaren fundazioa kontatzen zuen eta gugana iritsi ez den jatorrizko dokumentu baten existentzia eta apezpikutza Alfontso II.aren garaian sortuko zela.

Dokumentuaren azterketara itzuliz, Joan apezpikuak Gaubea haranean presuren bitartez Valpuestaren inguruko lurren gaineko eskubideetaz jabetu zen (“*cum montibus et fontibus vel padulibus, ingressum et regressum*”), lehen eragin-esparru bat zehaztuz. Beraz, “*coto redondo*” erako presureta hitz egin genezake (Peña, 1993: 257). Ondoren, Losako haranean, Gaubeakoaren iparraldeko mendien beste aldera, bigarren esparrua zehaztu zuen. Hala ere, hemen lurren gaineko eskubideak lortzeko egindako pausoen ordena desberdina da lehen eragin-esparrukoarekiko: lehenik, terminoak zehaztu eta lurren gaineko eskubideak eskuratu eta, ondoren, eliza bat eraiki zuen (“*cum suos montes et suas fontes uel padulibus totum ad integrum. Et edificabi ibi egleſia uocabulo Sanctorum Iusti et Pastoris*”). Azkenik, bertan bizi zirelarik, Antañera joan, bertan presurak egin eta eliza

zaharrak (“*eglesias antiquas*”) aurkitu (San Kosme eta San Damian, San Esteban, San Zipriano, San Juan eta San Pedro eta San Pablo eta San Kaprasio) eta berenganatu zituzten (“*adfirmabi eas in meo iure (...) et tenui eas iure quieto*”), monastegi bat ere eraikiz. Orduan, hemen ere presuren bitartez espazio baten gaineko eskubideak lortu eta gero, elizak konfirmatzen edo eraikitzen ditu. Ondorioz, presurak eta elizen eraikuntza eta konfirmazioa dira apezpiku honek Valpuesta den zentroaren inguruko eragin-esparrua (jabetza eta horren gaineko eskubideak) eraikitzeko erabili zituen mekanismoak. Honakoa da Peñak eskainitako presuraren definizioa:

“la ocupación o aprehensión (individual, grupal o familiar; con sanción regia o sin ella) de espacios más o menos amplios (cultivados o no) sobre los que venía a adquirirse un derecho de posesión cercano a la propiedad amparado por la necesidad e interés de que la población se vincule a un espacio concreto y de que este sea productivo, lo que le confiere un carácter marcadamente socioeconómico” (Peña, 1993: 250)

Presuraren inguruko eztabaida historiografikora itzuliz, lehen aipatu dugun moduan, Peñak berak, García de Cortázarrekin batera, ekintza presorearen fikzioa argitu eta tokian tokiko komunitateek ustiatutako espazioen eta kultu-jarduera jasotzen zuten elizen gain egiten zirela adierazi zuen. Gainera, ohartu zuen presoreek beraien ekintza burutzen duten lurraldeen gaineko kontzientzia espazial argia daukatela. Izan ere, hauek garaikideek pertzibitzen zituzten lurralde-unitate ezberdinak ezagutzen zituzten zein hauek lotzen zituzten bideak eta galtzadak, Joanek terminoen mugak zehazteko aipatzen dituenen moduan. Zentzu horretan, García de Cortázarrek eta Peñak presuren logika ulertzen dute aurretiazko egituren berrantolaketa eta akulturazio prozesu bat bezala zeina lotua dagoen jabetzaren zentzu erromatar batekin (Peña, 1993: 254-257).

Hauei erantzunez, Larreak eta Viaderrek bi aldeek, bai presoreek bai komunitateek, konpartitzen eta onartzen duten mekanismo bat egotearen beharra defendatzen dute. Horren harira, apezpiku eta abade presore hauen jarduerari elizak oso lotuak daudela azpimarratzen dute. Aldi berean, IX. mendeko dokumentazioak tokian tokiko eliza landatarren aniztasun ikaragarri baten berri ematen digu. Izan ere, elizak komunitateen kohesio eta kristalizaziorako ezinbestekoak ziren eta presoreek hauek erabiliko zituzten komunitateetan barneratzeko (Larrea, 2007a: 328-329). Honek erantzungo lioke hirietatik landa eremurako kristautasunaren zabalpenarekin abiarazi eta bisigodoen garaian jarraipena izan zuen prozesu bati. Eremu landatarrean kristautasunaren zabalpena prozesu mantsoa izan zen eta inizatiba pribatuek eta familiarrek paper garrantzitsuagoa izan zuten

apezpikuenek baino. Soilik jardun horiek ahalko lukete hiriak ziren gune kristau nagusietatik kanpoko espazioetako “mugako kristautasun” hori enkoadratu. Dena den, kontzilio bisigodoetako aktek apezpikuen saiakerak eta interesak erakusten dituzte diozesi barruko parrokiak kontrolatzeko (Ripoll & Velázquez, 1999: 142-145; 152-156).

Beraz, Larrea eta Viaderri jarraituz, elizen zabalpeneko testuinguru honetan uler dezakegu bai Joan apezpikuaren bai Tobillaseko San Romaneko Abito abadearen ekintza presorea (Larrea, 2007a). Hauek azpimarratzen duten presura eta elizaren arteko lotura Joan apezpikuak Valpuestaren inguruko eragin-esparrua finkatzeko bi mekanismoetan ikus dezakegu: batetik, elizez jabetzean bere inguruan terminoak zehazten ditu eta, bestetik, gune baten gaineko presurak burutu ostean, elizak eraikitzen edo konfirmatzen ditu. Modu horretan Losako haranean San Justo eta Pastor eliza eraikitzen du, Antañen aurretik zeuden elizak konfirmatzen ditu eta, ziur asko, Valpuestako Santa Maria bera presuraren objektu izan zen. Horrela, Joanez “*eglesias antiquas (...) adfirmavi eas in meo iure*” esaten duenean, zalantza askorik gabe, konsagrazioan pentsa dezakegu. Beraz, apezpiku batek bere menpeko eragin-esparru bat presura bidez definitzean elizen eraikuntza eta konsagrazioa mekanismo ezinbestekoak dira.

Kontutan hartu behar dugu pertsonaia hauek aberastasun nabarmena (ez soilik beraien lurretan, baizik eta presura horiek burutzeko baliabideetan ere) eta eragin erregionaleko beste taldeekin harremanak zituztela. Horretaz gain, liturgia garbiak, arkitektonikoki inguruetako eliz landatarren artean nabarmentzen diren elizek, ortodoxiak eta beraiekin dakartzaten erlikiek pertsonaia erakargarriak bihurtzen zituzten inguruko komunitate landatarretako kideentzat. Honakoa erabakigarria izango litzateke lurren gaineko eskubideez jabetzeko pertsonaia hauek tokiko komunitateen adostasuna eta negoziazioa bilatuko baitzuten. Elizen bitartez komunitate hauetako eraikuntza sozialean barneratu eta pertsonaia hauen boterearen zentroaren eta komunitatearen artean tokian tokiko markotik haratago joaten diren harremanak eraikiko zituzten. Hori dela eta, apezpiku hauen funtzioa lurren artikulatzaile bezala azpimarratu beharko genuke (Larrea, 2007a: 329, 333-334). Eredu honek bai presoreen, bai garaiko komunitateen aldetik ulergarria den logika zehatz bat azaleratzen du. Beraz, Larrea eta E. Pastorrekin (2012: 320) bat eginez, ezin da pentsatu dokumentuak bere osotasunean baztertu behar direnik IX. mendeko gizartearen praktika sozioekonomikoetatik eratorzen dira eta.

Haatik, Joanen jarduera guztiz ulertzeko azpimarratu beharko genuke apezpikuen ekintzaren garrantzia. Elizaren goi mailako autoritateak diren neurrian, bakarrik beraiek bete ditzaketen funtzio batzuk aurkitzen ditugu, gorago behaturiko elizen edo presbiteroen konsagrazioa bezala: liturgia propioa, Ostegun Santuko meza zein kondearen edo erregearen botereari lotutako erritu publikoak (Larrea, 2007b: 75). Valpuestan apezpikutzat bat ezartzean eta haren inguruan eragin-esparru bat eraikitzearekin batera, apezpikuari lurraldearen gaineko nagusitasun bat onartzen zaio, bere inguruan hierarkia bat eraikiz.

Amaitzeko garrantzitsua da Valpuestako hurrengo belaunaldietako apezpiku eta abadeek Joan apezpikuaren dohaintza konfirmatu egiten dutela azpimarratzea. Hurrengo dokumentuetan ere hauek aurkituko ditugu: Fredulfo (894), Diego I (894 eta 900), Felmiro (911) eta Diego II (929tik aurrera) apezpikuak, eta Tello eta Alvaro abadeak. Beraz, honakoa Valpuestako apezpikutzaren genealogiatzat har dezakegu, hots, egoitzaren memorian barneratzen diren apezpikuak.

2.1.2. Elduararen dohaintza (864) eta Sonna eta Muninaren eta San Kosme eta San Damian monastegiaren arteko paktua (865):

Azterketa honekin jarraituz, atal honetan bi dokumentu analizatuko ditugu: Elduararen 864ko dohaintza eta hurrengo urteko Sonna eta Munina bikotearen eta San Kosme eta San Damian monastegiaren arteko paktua.

Joan apezpikuaren narrazioaren ostean, salto kronologiko garrantzitsu bat eta gero, Valpuestako dossierrean aurkitzen dugun hurrengo dokumentua Elduara eta bere seme-alabek Erretes Tudelako Santa Maria elizari 864an egindako dohaintza da (BV 3). Familia honek aitak presuren bitartez lortu zituen ("*ececit de scaldio*") jabetzak, errota eta serna ematen ditu. Gainera, Elduarak heredentziaren bosten bat eransten du ("*omnem mean quintam in ipso loco concedo et confirmo*"). Berriro ere aurkituko genuke presuren mekanismoa espazio batetaz jabetzeko eta eragin-esparru bat antolatzeko bide bezala. Hala, familia honek Artzeniega aldeko eskualde honetan ("*in ipso valle*") eragina zein Valpuesta inguruan bertan ("*in Sancti Saturnini seneram*", hots, San Zadornilen) jabetzak ere izango zituen.

Bestetik, Sonna eta Munina bikotearen eta San Kosme eta San Damian monastegiaren arteko 865eko paktua ("*pactum fecimus*") aurkitzen dugu (BV 4). Dokumentuaren

arabera, paktu horren bidez urte batez zenobio horretako komunitatearekin batera bizitzea adosten dute beraien arimaren alde (ziur asko penitentzia egiteko). Paktu horren desobedientzia saihesteko eliza horren ondoko bi modio lur eta beste hainbat alor (“*duos modios seminata et ferraine et pumares et kasares et quintana et exitum*”) ematen dituzte. Honakoa aurrerago ere ikusiko dugun tradizio hispaniar-bisigodoaren paktualismoaren adierazle da. San Kosme eta San Damian Joan apezpikuaren errelatoan aipatzen da, Antefeko eremuan presurak egin ostean konsagratuako “*eglesias antiquas*” horietako bat da eta.

F.J. Fernández Condek monjeek penintsularen iparraldean kristautasuna zabaltzen eta finkatzen zein geroko “birpopulatzean” edo espazioaren berrantolaketan izandako paper garrantzitsua azpimarratzen du. Monastegi hauetatik inguruko eskualdeetako populaketa antolatuko litzateke ikuspuntu formal batetik oraindik guztiz definitua aurkitzen ez den monastegiko bizitza baten inguruan. Zentzu honetan, dokumentazioan agertzen diren Elduara bezalako pertsonaien jarduera (Valpuestako Joan edo Tobillaseko Avito abadearena bezala) IX. mendeko Goi Ebroko “monakotza kolonizatzaile” horretan barneratzen du (2008: 159-160, 260-261). Dena den, ez ditu kontutan hartzen zenobio hauen inguruan sortzen diren harremanak ezta, are gutxiago, apezpikutzaren inguruan eraikitako hierarkizazioa.

Izan ere, bi dokumentu hauek komunitate ezberdinetako kideek tokiko elizarekin eta hauek Valpuestarekin sortzen duten harremanen adierazle ditugu. Lehenengo dokumentuan Erretes Tudelako Santa Mariari egindako dohaintzaren bitartez emaleek elizarekin erlazio bat erakusten eta eraikitzen dute eta, ziur asko, Erretes Tudelako elizaren bitartez, Valpuestarekin. Izan ere, zalantza gutxiarekin esan dezakegu eliz hori Valpuestaren harreman-sarean integratua egongo zela (bereziki dohaintzaren dokumentua apezpikutzan gorde zelako) eta honek, Fernández Condek dioen bezala, zentro bezala funtzionatuko luke inguruko eskualdeetako monastegietako eta elizetako bizitza antolatzera begira. Horretaz gain, Elduararen familiak serna bat San Zadornilen edukitzeak Valpuestarekiko gertutasuna erakusten digu, ez soilik fisikoa, baizik eta harreman-sarean integratuak egongo ziren. Hots, egoitzaren eta eskualdean eragina izango zuen familia lurjabe baten arteko harremanaren adierazle da. Berdina esan dezakegu San Kosme eta San Damian monastegiari buruz, honek Joan apezpikuaren ekintza presorera zuzenean eramaten gaituenez, bertako komunitatearen eta egoitzaren

arteko lotura askoz argiagoa da. Ondorioz, Valpuesta esparru zabal batean sortzen diren harreman-sareen erdigune izango zen.

Aipamen berezi bat merezi du Emerito presbiteroak 875. urtean San Kosme eta San Damian monastegi horri egindako dohaintza (BV 5). Honek bere lurrez, mahastiz eta errotaz gain monastegiari liburuetan benetako altxorra ematen dio: “*comicum, manualement, duos psalterios, orationum, antifonarium, orarium*”. Arazoa sortzen da testuaren hasieran presbitero bezala aurkezten den pertsonaiak (“*Ego, Emeritus presbiter, tradidi...*”) apezpiku bezala, eta Merito izenarekin, dohaintza konfirmatzen duelako (“*Ego, Meritus episcopus, in hunc pactum que feci manum mea rouorabi signum*”). Aipagarria da ere aurreko paktu monastikoaren dokumentuan (BV 4) konfirmatzaile bezala agertzen dela (“*Meritus presbiter hic signum*”). Nahiz eta pertsonaia honen dignitate eklesiastikoari buruzko informazioa kontraesankorra izan, M. Carriedo Tejedok (2002: 84) ez du guztiz baztertzen Merito hau apezpiku gaztelaua izan zitekeela. Dauzkagun datuekin onar genezake pertsonaia hau presbiteroa izan zela eta oso lotua zegoela San Kosme eta San Damian monastegiari eta bertako komunitateari eta, beraz, Valpuestari. Hala, pentsa daiteke presbitero hau geroago apezpiku bihurtu zela eta, Valpuestarekin duen loturaren ondorioz, ausartu gaitezke planteatzera bertako apezpiku izan zela. Kontutan hartu dezakegu liburuetan duen aberastasuna liturgia garbiaren eta ortodoxiaren adierazle dela. Dena den, 804ko Joanen dohaintza onartzen duten Valpuestako apezpikuen zerrendan ez da aurkitzen. Egia da Merito Valpuestako apezpiku kontsideratzeak Joan apezpikuarengandik Fredulfo apezpikuaren 894ko aipamenera arte dugun hutsunea betetzen lagundu ahalko ligukeela, baina daukagun informazio urri eta problematikoarekin ezin daiteke ezer ziurtasunez baieztatu.

2.1.3. Fredulfo apezpikuaren 894ko dohaintza:

Joanen aipamenaren laurogeita hamar urteko tarte kronologikoaren ostean, Fredulfo da Valpuestako egoitzari ziurtasun handiagoarekin lotu dezakegun bigarren apezpikua. Hala eta guztiz ere, hau fenomeno orokortua da, ez baitago Penintsularen iparraldean IX. eta X. mendeetan episkopologia fidagarritasunez biltzen duen egoitzarik (Ruiz de Loizaga, 2004: 251). Pertsonaia hau San Roman monastegiaren eraikuntzaren eta hari 894ean egindako dohaintza baten protagonista da (BV 6). Fredulfok presuren bitartez (“*monasterii cultum quam nuper in scaldido construimus*”) Villambrosan monastegia eraiki eta hainbat jabetzaren dohaintzaz hornitu zuen (“*donamus hunc locum abitatjonis*

domicilia, liuros, bineas, ortos, pomiferos, agros frumentarios”). Joanen modura, apezpiku honek presuren eta elizen konsagrazioaren bitartez (“*a nobis constant fuisse fundatum vel fundatas ecclesias*”) espazio bat eraikitzen du Valpuestarekin oso lotua aurkitzen dena eta bere eragin-sarean integratuko zena. Horrela, Fredulforen dohaintza bere ondorengoa dela pentsa dezakegun Diego I.ak konfirmatzen du, dokumentuaren hasieran txertatu zena (“*Didaco episcopo confirmo ante rex domno Ramiro*”).

Fredulfo apezpikuaren Valpuestako titulartasunaren inguruan zalantza sortzen da 906ko dokumentu batek Fredulfo izeneko apezpiku bat Okako egoitzarekin lotzen baitu (“*Fredulfus, Aucensis sedis episcopus*”) (CL 20). Nahiz eta autore batzuentzat (Sánchez Albornoz) dokumentu hau faltsua izan, Carriedo Tejedok (2002: 91) onartzen du Fredulfo honen lotura Okarekin. Hala ere, Martín Visorentzat (1999: 178) gure dokumentuko apezpiku hau bai izango litzateke Valpuestako titularra, egoitza horretako Diego II.a apezpikuaren osaba dena. Izan ere, 940ean Diego II.ak Valpuestaren menpera transferitzen du bere osabak fundatutako San Roman monastegia eta haren lurretan (“*in solares de meo tio Fradulfo episcopo*”) etxeak eta elizak eraiki zituela zein jabetzak horien gaineko eskubideak dituela adierazten du (BV 18). Nahiz eta, gure ustez, argi dagoen Fredulforen eta Valpuestaren arteko lotura (jarraikortasun bat duena bere familiako kideen artean eta Joanen dohaintza konfirmatzen duten apezpikuen artean agertzen da), bere titulartasuna zehaztea ez da garrantzitsua, baizik eta, Martín Visok (1999: 180) azpimarratzen duen bezala, inguruko komunitateen lurren (sernak) gaineko kontrola eta eskubideak dituen Valpuestari loturiko “apezpiku-familia” baten existentziaren berri ematen zaigula.

Modu horretan, presuren bitartez monastegien inguruan belaunaldi batetik bestera pasatzen diren harremanak sendotzen dira tokian tokiko komunitateen markoa gaintzen duen eraikuntza soziala katigatuz. Kasu honetan Valpuesta San Romaneko komunitatearekin lotzen du. Harreman horien gainean egituraketa sozial erregionala eratzen da (*territorium*) (Larrea, 2007a: 333-334).

2.1.4. Orbañanoseko San Joan monastegiko Guisando abadearen ekintza:

Gure dossierreko hurrengo dokumentuaren arabera, Guisando presbiteroak “*una cum gasalianes meos*” Orbañanoseko San Andres Apostolu eta San Joan Bataiatzailea monastegiari hainbat jabetza eman ostean, paktu bat egin eta Guisando abade bihurtzen

da (BV 7). Monastegiari liburuak, Obareneseko San Justo eta San Pastor eliza eta Ebro ibaitik hegoaldera dituzten beste hainbat jabetzaren (mahastiak, lurrak, errotak, frutarbolak...) zerrenda luze bat dohaintzan ematen diote. Ondoren, paktuaren bitartez, Guisandoren gidaritza onartzeaz gain, komunitate horretako bizitza antolatzeko hainbat arau eta zigor zehazten dituzte. Erregela hau Diego apezpikuak berriztatu zuen 900ean, zalantzarik gabe, Fredulfok 894ean San Roman monastegiari egindako dohaintza konfirmatu zuen pertsonaia berbera eta Valpuestako titularra dena. Hala ere, erregelaren erredakzioa aurretik egin zen, ziur asko, 870ean². Aipagarria da ere Donemiliagako kartularioan Orbañanoseko monastegiaren fundazioaren eta Guisandoren berri ematen digun beste dokumentu bat aurkitzen dela (BSM 424).

Guisandoren kasua paktualismoaren adibide izango litzateke, hots, izaera kontraktuala eta kolektiboa dauka, bi aldeetatik konpromisoak eskatzen dituen. C. Díez Herrerak dokumentua aztertu eta *Regula Communis*-ean inspiraturik dagoela defendatzen du. Haren arabera, Guisando abadearen gidaritza eta autoritatea onartzen da, baina modu itundu eta mugatu batean, bere erabakiak komunitatearekin bat egin behar dutelako. Gainera, antza denez, izaera guztiz fundazionala izan beharrean, komunitate bat baino gehiago erregela komun baten azpian uzten ditu (1994: 177-178). Garai honetan ugariak dira komunitate bateko kideen arteko paktuaren ondorioz sorturiko monastegien kasuak, jada garai bisigodotik erregulatzen saiatu zirenak (adibidez, aipaturiko San Fruktuosoren *Regula Communis*). Monakotza hau “aurrebeneditarra” bezala izendatua izan da (Fernández Conde, 2008: 222-226).

Fernández Conderentzat (2007: 257-258) Guisandoren ekintza gorago aipaturiko “monakotza kolonizatzailearen” adierazle da. Dena den, Guisandok, Joanek, Avitok edota Fredulfok egin zuten bezala, eliza baten eraikuntzarekin Orbañanoseko San Joan monastegiaren inguruan eragin-esparru bat definitzen du. Nahiz eta hemen zuzenean ez agertu presurarik, Donemiliagako bertsioan aipatzen da, ordea, Guisandok berak bere eskuekin lantzen jarri zituen lurrak ematen dituela (“*terras que de manibus meis rumpi et fodi in Castilla*”). Beraz, monastegi hauen inguruan espazioa artikulatzen eta eragin-sare bat eraikitzen da.

² Dokumentuaren arabera, erregela 770ean definitu zen (“*Et inuenimus in regula prima ipsas kalendas malas, era DCCC VIII. Regnante rege Adefonso in Obeto*”). Hala ere, data hori izateko ezintasunaren aurrean (besteak beste, urte horretan Asturiasen ez baitago Alfontso izeneko erregerik), “C” bat falta dela proposatzen da, 870era eramango gintuzkeena (Ruiz Asencio et al, 2010: 203).

Valpuestako eta Donemiliagako kartularioko bertsioaren artean desberdintasun batzuk aurkitzen ditugu³, baina batez ere azpimarratu behar dugu Donemiliagako dokumentuan monastegia eraikitzen dela Elmiro deituriko apezpiku baten bedeinkapenaz (“*sub benedictione domno Elmiro episcopo*”). Horrela, I. Loring edo Martínez Díezek (2004: 237-241) sostengatzen dute Elmiro hau, *Albeldense*-an 881ean agertzen den “*Felemirus Uxome*” apezpikua dela, Osmako tradizioa jarraitu eta Valpuestan ezarri zena. E. Pastorrek (1996: 132-136), eta, berari jarraituz, Martín Visok (1999: 168-169), ordea, defendatzen dute Valpuestaren eta Osmaren artean ez dagoela inolako loturarik (aztertu dugun moduan, Valpuestako dokumentazioan ez baita halakorik adierazten) ezta Osmako egoitzaren jarraikortasunaren haustura batean pentsatzeko aukerarik ere. Dena den, Donemiliagako bertsioan agertzen den Elmiro honen titulartasuna alde batera utzita (apezpikuaren aipamena Donemiliagako bertsioan eta ez Valpuestakoan agertzea nabarmena izanik), monastegiaren eraikuntzarako apezpiku baten bedeinkapenaren beharra da, gure ikuspuntutik, azpimarragarriena. Díez Herrerak (1994: 181) sumatzen duen bezala, monastegi baten eraikuntzarako beharrezkoa den gauza bakarra apezpikuaren onespena izango litzateke. Valpuestako erredakzioak fundazioa apezpiku baten onespenearekin egiten denik aipatu ez arren, bai, ordea, Diego I. apezpikuak Orbañanoseko monastegiaren paktu bidezko erregela 900ean berritzen du.

Beraz, hemendik atera dezakegun ondorio nagusia apezpiku figuraren autoritatearen garrantzia izango litzateke, bai zenobioaren fundazioan bai paktuaren berriztapenean gauzatzen dena. Diego apezpikuaren kasuan ikusten den moduan, bere autoritatea ez zen bakarrik mugatuko bere egoitzaren eskualdera, baizik eta bertatik kanpo ere, Ebrotik hegoaldera. Hori dela eta, apezpikuaren autoritatea onartzen den neurrian, bere papera beharrezkoa izango litzateke zenbait ekintza onartu eta legeztatzeko.

³ Donemiliagako bertsioan Guisandok, hasieratik abade bezala agertzen dena, “*simul cum sociis meis aliis fratribus*” 867an San Juan, San Justo eta Pastor eta San Kaprasio monastegia eraikitzen du Orbañanos eta Obaranesen (“*fabricavimus ecclesia in nomine sancti Iohannis Euvangeliste et sanctorum Iusti et Pastor et sancti Caprasi, in locum qui dicitur Orbanianos et Ovarenas*”) eta, ondoren, dohaintza egiren dute. Valpuestakoarekin alderatuz, monastegiaren eraikuntzaren eta dotazioaren berri ematen digu modu zehatzago batean, baina ez da paktua aipatzen. Díez Herreraren arabera, monastegiaren fundazioaren momentu berdinarekin bi bertsio ezberdin dira. Horrela, Orbañanosen San Joan eraiki ondoren Obaraneseko monastegia gehituko zen bi zenobio hauen bat egite edo San Joanen menpeko hierarkizazio bat burutuko zen neurrian (1994: 170-171).

2.1.4. Justiziaren jarduera: 911 eta 919etako auziak:

Analisiarekin jarraituz, Valpuestako gure dossierrean X. mendearen hasieran ospaturiko bi auziren berri ematen diguten bi dokumentu aintzat hartuko ditugu. Lehengoak 911ean Gabineako (Urduña) Donemiliaga elizan ospatu zen Tello Valpuestako abadearen eta Analso eta Sibero presbiteroen arteko auziaren berri ematen digu (BV 10). Dokumentuak lau pertsonen zinpeko lekukotza jasotzen du “*condiciones sacramentorum*” formularen bitartez. Horrela, lekukoek kontatzen dute Analso presbiteroak Felmiro apezpikuari eta Valpuestari bere ondasun guztiak eman zizkiela eta apezpikuak, trukean, Analsori orube bat bere etxea eraikitzeko. Beraz, antza denez, bi presbitero hauek epaituak dira Felmiro apezpikuarekin egindako tratu hori hautsi egin zutelako, ziur asko lur jakin baten (“*quod determinaverunt pedibus suis*”) erabileraren inguruan erabakitakoaren haustea. Auzia Valpuestaren alde amaitzen da bi presbiteroek onartzen baitute lekukoek testigantzan esandakoa eta beraien buruak eta ondasunak ematen dituzte.

Epaiketa honetan, lehenik eta behin, botere publiko erregionalen presentzia azpimarratu behar dugu, lau lekuko horiek Gonzalo Tellez Lantaroneko kondearen aginduz testigantza eman baitzuten (“*ex ordinacione Gondosalbo Tellezi*”). Aurrerago aztertuko dugun 903ko dokumentuaren datazioan kondea ere aipatzen da (“*comite Gondosalbo Telluz in Castella*”) (BV 9). Beraz, honek Valpuestaren eta autoritate kondalaren arteko harremana erakutsiko liguke. Bestetik, zalantza askorik gabe baieztatu dezakegu Felmiro apezpiku hau Valpuestako titularra dela, pertsonaia honen eta egoitzaren arteko lotura argia baita: Analsok tratua Felmiroekin eta Valpuestarekin egiten du eta, behin lekukotzan esandakoa onartuta, bi presbiteroek beraien buruak eta ondasun guztiak apezpikuari eta Valpuestari ematen dizkiete (“*ad domnum Filimirum episcopum uel ad regula Sancte Marie in Balle Conposita*”). Beraz, Pastorri jarraituz (1996: 135-136), *Albeldense*-koarekiko hogeita hamar urteko desberdintasunarekin Valpuestari loturik agertzen den Felmiro apezpikua ezin liteke izen bereko Osmako apezpikua izan, aurretik Fredulfo eta Diego aurkitzen baitira.

Horretaz gain, dokumentuak erakusten digu Valpuestan aldi berean apezpiku bat eta abade bat egon daitezkeela. Kontutan hartu behar dugu Valpuesta bera monastegi bat dela eta abadeak, beraz, bertako komunitatean edukiko luke oinarria. Haren gainean, zuzenbide kanonikoan oinarriturik, apezpikua aurkituko genuke, aurreko dokumentuetan oinarrituz, praktikan ere gauzatuko zen autoritatea zela pentsa dezakegun heinean.

Horrela, Valpuestako apezpikuak bere autoritatea bere eskualdean zein kanpoan, Orbañanoseko San Roman monastegiaren kasuan bezala, gauzatuko luke.

Apezpikutzaren baitako justiziaren administrazioaren inguruko informazioa 919ean Espejon ospaturiko auzi baten berri ematen digun dokumentuarekin osa dezakegu (BV 11). Dokumentu honek ere “*conditiones sacramentorum*” formularen bitartez bi lekukok emandako testigantza jasotzen du Valpuesta eta Santoñako Santa Maria del Puerto elizaren arteko auzia dela eta. Bi zentro erlijioso hauek aurrez aurre jartzen dira Fenesterio presbiteroaren *traditioaren* gaineko eskubidetaz jabetzeko. Lekukoek testigantzan ematen dute Fenesterio presbiteroak bere gurasoengandik jasotako ondasunak (“*sua zella, que abuit de suos parentes, cum omni adito suo, uocabulo Sancti Martyni episcopi*”) zein beste hainbat jabetza Valpuestari eman zizkiola.

Espejoko auzi hau eskualdez haraindiko justiziaren adierazle dugu. Hala, Valpuestako egoitzaren harreman-sarearen irismena zabala izango litzateke Santoñako Santa Maria del Puerto eliza kantabriarraren interesekin talka egitera iritsi bazen. Hala ere, oraingoan ez da konde bat agertzen prozesua gidatzen duen botere publiko bezala, baizik eta Vela epailea eta harekin batera beste hiru abade: “*ex ordinatjone Uigilani iudicis uel multorum Iudicum, id est, Ualerius abbati et Maurellus abbati et Assuri abbati*”. Larreak defendatzen duen moduan, epaimahaiaren burua den Vela Tobillaseko abadea izango litzateke, Araban kondeak diren velatarren familiako kidea. Izan ere, kontutan hartu behar dugu Tobillaseko San Roman, Valpuestarekin batera, zonaldeko beste zentro erlijioso garrantzitsuena zela. Beraz, *territoriumaren* esparru supralokaren markoaren barruan bi zentro erlijioso hauek justiziaren administrazioan erlazonaturik aurkitzen ditugu (2007a: 330-331). Epaiketa konde batek gidatzen ez duen arren, Munio Velaz kondearen autoritatea onartzen da Araban, Ordoño erregearenarekin batera (“*Regnante domno Ordonio in Leone, et comite Munnio Uigilazi in Alaba*”).

Ondorioz, bi kasuetan antzeman dezakegu justiziaren administrazioan kondeekin harreman garrantzitsu bat antzematen dela. Antza denez, kondeak justiziaren administrazioan ezinbestekoak ez badira ere, justiziaren gauzapenerako beharrezkoa da goi mailako autoritate baten errekonozimendua (Larrea & Pastor, 2012: 323-324). Beraz, kondearen eta eskualde hauetako boteregune erlijiosoen arteko hartu-eman garrantzitsua justiziaren jardueran aurkituko genuke, *territoria* hauetan barneratua. Hala, Martín Visok

(1999: 179) baieztatzen duenez, Valpuesta Lantaroneko konderriaren barnean kokatzen da eta Tobillaseko San Roman, Arabako apezpikutzaz bezala, Arabako konderrian.

Arabako apezpikutzari buruz dagokionez, IX. mendearen amaieran honen titulartzat hartu diren Bivere eta Alvaro apezpikuak aurkitzen ditugu. Lehenengoak 871ean⁴ Akostako San Vicente monastegiari bere familiako beste kideekin eta pertsonekin batera dohaintza bat egiten dio (BSM 220). Dokumentuak ez digu zehazten nongo apezpikua den, baina Estabelu inguruko familia batekoa izango zen bertan baititu bere jabetzak. Beraz, inguru horietan apezpiku bezala jardungo zuela pentsa dezakegu. Bigarrena 881an *Albeldense*-an aipatzen da Velegiako apezpiku bezala ("*Alvarus Velegiae*"). Velegia hori Iruña Veleiarekin (Tresponde) lotuz, Araba-Veleiako apezpikutzat hartu da (Mañaricua, 1964: 43-48). Bolibarreko elizan Alvaro apezpikuaren ustezko hilarria aurkitu zen, baina hasieran 888ko data ematen bazen ere, A. Azkaratek eta I. García Caminok (1996: 135-137) kronologia 928an ezartzen dute.

2.1.5. San Zipriano elizaren inguruko komunitateak:

Valpuestako dossier dokumentalarekin amaitzeko, X. mende hasierako bi dokumenturen analisia egingo dugu. Kartularioan kronologikoki bata bestearen atzean ez badaude ere, San Zipriano monastegiaren inguruko harremanen berri ematen digutelako batera aztertzea erabaki dugu. Valpuestaren eragin-esparruko eliza baten inguruan artikulatzen diren komunitateetako funtzionamenduaren berri ematen digute, Joanen errelatora bueltatuz, San Zipriano Antañen aurkitzen den eta apezpikuak konsagratuako eliza horietako bat da eta.

Lehen dokumentuaren (BV 9) arabera, 903an San Zipriano inguruko komunitate horretako kide diren Zejano eta Valeriak Gemelori saldu zizkioten Gottelen (Quejo) zuten lurra eta hamabi sagarrondo. Erosketa hori ordaintzeko dirua Analso presbiteroak (ziur asko 911an, Sibero presbiteroarekin batera, Gabinean epaitua izango dena) bere lehengusina Munaso eta Gemelori eman zien San Ziprianoren kutxatik. Beraz, salerosketa bezalako ekintza arrunt honen bitartez antzeman ditzakegu monastegi hauen inguruan aurkitzen diren familiak eta hauen arteko harremanak.

⁴ Mañaricua (1964: 43) urte horretan Diego kondea Gaztelan agintzen ez zuenez, konde honek gobernatzen zuen garaira atzeratzea proposatzen du, 876 onetsiz.

Beste aldetik, bigarren dokumentuak (BV 17) esaten digu komunitate horretako kidea zen Liziniano 939an hil zenean lurperatua izateko hil-jantzirik ez zeukala. Horrela, bere auzokideak Severorengana “*qui sumus de ista regula de Sancti Cipriani*” jo zuten eta hari Lizianoren “*sorticella*” (banatu zein zozketaz edo heredentziaz jasotako esparru jakin bateko zatia) eman zioten eta harekin erosi zizkion hil-jantziak. Gainera, Cardelo presbiteroa, “*per iussione suis vecinis et gens*”, fidatzaile bezala agertzen da ziurtatzeko inork ez diola eskatuko Severori hil-jantziak erosteko eman dioten jabetza.

Ondorioz, bi dokumentu hauek Valpuestaren eragin-esparruaren oinarrian aurkitzen ditugun komunitateen bizimoduaren eta praktika sozialen hainbat elementu eta faktore azaleratzen dituzte. Kasu bietan komunitate horretako kideak eta familiak elizaren inguruan erlazionatzen dira, esan bezala, hauek komunitatearen kristalizatorako eta kohesiorako mekanismo nagusia diren heinean (Larrea, 2007a: 329). Izan ere, elizak egitura sozio-ekonomikoan txertatu eta hauen bitartez espazioaren antolaketa burutzen da, baina Valpuesta erdigune bihurtzen da haren inguruan eraikitako espazioa hierarkizatuz.

2.2. Kintilaren dossierra:

Konkista osteko apezpikuen azterketarako hurbilpen honekin jarraitzeko Kantabriako Kintila apezpikuaren inguruko dokumentuak biltzen dituen bigarren dossier bat osatu eta aztertu dugu. Valpuesta jarraikortasun bat duen egoitza da, Kintila askoz ere efimeroagoa den neurrian. Izan ere, apezpiku hau dokumentazioan aipatzen diren “egoitzarik gabeko” apezpiku ibiltari ugarietako bat izango genuke (Martín Viso, 1999: 171-172). Apezpiku titulua duten pertsonaia hauei aitortu zaie egoitza finkoa, eta, are gehiago, diozesia, falta zaiela, apezpikuen berezko ezaugarri bat beraien botere jurisdikzionalaren lurraldetasuna izanik (Fernández Conderen, 2008: 261). Horrela, Kintilaren dokumentazioaren analisiak apezpiku “ibiltari” hauen azterketa ahalbidetzen digu. Horretarako, Florianoren (1949) Asturiaseko Erresumaren bilduma diplomatikoko 23., 24., 25. eta 29. agiriak (ikus. 1.2. eranskina) erabiliko ditugu.

DA 23., 25. eta 29. dokumentuak Oñan pergamino batean kopia eta hau “Caxon de Liencres” delakoan gorde zen. Dokumentu honen kopia edo erreferentziak aurkitzen dira Sota edo Argaizen lanetan. Pergamino hori galdu bazen ere, Liciniano Sáezek kopia zuen eta Siloseko artxibategian gorde zen. Silosekoa da Perez de Urbelek bere lanean publikatu zuena (Floriano, 1949: 117-118). Hiru dokumentu hauek Oñan

pergamino berean kopiatu izana haien arteko harremana erakusten du, hiruak Fistoletako San Vicente monastegiari (Esles) egindako dohaintzak baitira. Transmisioaren momentu batean gehituko zen DA 25 dokumentuaren amaieran kopiatu zen dokumentu zatia, antza denez, monastegiaren inguruko terminoak zehazten dituena.

Kintila IX. mendeko hasierako hamarkadetan Trasmiera eskualdean eta Santander aldean aurkitzen dugu. Pertsonaia hau oso estu lotua dago Fistoletako San Vicente eta San Kristobal monastegiarekin. Lehenengo dokumentuaren arabera (DA 23), Kintilak, bere arreba Subildirekin batera, 811an Sisenando abadeak eta Gudugiak, “*Deo vota*”, Fistoletako monastegiari egindako hainbat jabetzaren dohaintza konfirmatzen du (“*Kintila episcopus ibi preses fui et signum fecit, Subildi confirmans*”). Fistoletako monastegia bera, eta hiru villa (Fistoletako, Penagos eta Cabarceno) ematen dizkiote zeintzuk presuren bitartez lortu zituzten (“*scaldamus de nostris manibus*”). Aurrerago, 820ean, Kintilak eta bere arrebak San Vicente monastegiari eta beraien iloba Goginari (“*ad suprina nostra domna Gogina Deo vota*”) beste dohaintza bat egiten diete (DA 29), kostaldeko eremuan dituzten hainbat villa eta monastegi dohaintzan emanez. Beraz, bi dokumentu hauek Fistoletako monastegiaren inguruan eraikitzen diren harremanak erakusten dizkigute. Amaitzeko, 812ko Alfontso II.aren Oviedoko San Salvador monastegiaren fundatze-dohaintza konfirmatzaileen artean agertzen den “*Cintila episcopus*” (DA 24) Kintila bera izan liteke, bai Fernández Condek (2008: 353) bai Martín Visok (1999: 171) uste duten moduan.

Honakoa da apezpiku honen inguruan dokumentazioan agertzen den informazio guztia. Dena den, informazioa oso dezakegu 816ean Gudesindo kondeak Fistoletako San Vicente monastegiari egindako eliz eta villen (“*meas villas et meos monasterios quem abeo de parentum vel abeorum meorum*”) dohaintza zabalaren berri ematen digun dokumentuarekin (DA 25). Izan ere, Trasmiera eta Asturias de Santillana eskualdeetan zehar, kostaldean zein barnealdean eta Kantabriar mendikatearen bi aldeetara (batzuk “*foras monte, in Castella*”) aurkitzen diren hogeita villa inguru ematen ditu, bakarrik, bere monastegi edo elizarekin, elizarekin bakarrik edota bere eskubide eta jabetza guztiekin. Modu horretan, kondeak monastegian lurperatua izateko nahia adierazten du.

Dokumentazioak lurralde zabal batera bere eragina hedatzen duen Fistoletako monastegiaren inguruan antolatutako ondare anitz baten berri ematen digu (ikus. 2.2. eranskina). Modu horretan, Valpuestan bezala, erdigune den zentro erlijioso baten

inguruan harreman-sare bat, eta, beraz, eragin-esparru bat, artikulatzen da eta, horren barnean, Kintila eta bere arreba aurkitzen ditugu. San Vicente monastegiari oso lotuak agertzen dira, bertako komunitateko kideekin senidetasun-harremanak dituzten heinean. Hala, 820ean buruturiko dohaintzaren momentuan monastegiaren gidaritzan hauen iloba den Gogina aurkitzen dugu dohaintzaren jasotzailea dena. Are gehiago, suposa dezakegu monastegia familia honetakoa dela eta Gogina monastegian aurkituko genuke, ohikoa baitzen jabetza zabaleko familia bateko emakume bat monastegi nagusian egotea haren inguruan sortutako familiaren memoria gordetzeko (Larrea & Pastor, 2012: 321).

Horrela, aurretiaz aipaturiko tradizio bisigodoari erantzuten dion monastegi bikoitz baten aurrean aurkituko ginateke. Horretaz gain, Gundesindo kondea, eskualdean botere politikoa duena, monastegi honen inguruan sorturiko harreman-sarean uztartzen da eta Kintilaren familiarekin harreman estua erakusten du, senidetasun-harremanez ere hitz egin dezakegun heinean (Peña, 1993: 252). Gainera, kondeak 816an ematen dituen villen eta jabetzen artean gero Kintilak eta Subildik ematen dituzten batzuk aurkitzen ditugu zein honek monastegian lurperatua izateko nahiaren bitartez bere memoria monastegiari lotua gordetzeko borondatea erakusten du.

Beraz, dokumentazioaren azterketak ematen digun irudiak ez du bat egiten tradizionalki egoitzarik gabeko apezpiku “ibiltari” hauei egotzi zaien izaerarekin. Izan ere, ustezko batetik bestera ibiltze horren aurrean, monastegi baten inguruan antolaturiko lurralde jakin batean bere eragina gauzatzen duen apezpiku baten ekintza-esparru zehatz bat aurkitzen dugu. Gainera, bere botere- eta eragin-gunea egoitza batean formalizaturik ez egon arren, oso lotua aurkitzen dugu Fistoletako monastegiarekin. Hori dela eta, ezin diogu Kintilari “ibiltaritzaren” ideia hori lotu.

Martín Visok defendatzen du tokian tokiko aristokraziaren kide izango zela eta bere botere erlijiosoa monakotzatik erator daitekela. Hala, Kintila Kantabria aldean ere, Santoñako Santa Maria del Puerto elizari lotua, aurkitzen den Antonio izeneko beste apezpiku efimero batekin lotzen du. Hau 863an Santa Maria del Puertoren alde amaitu zen auzi bateko epaimahaiko kide bezala agertzen da. Autore honi jarraituz, aurretiazko apezpiku-tradiziorik eta supraerregionaleko aristokraziarik gabeko gune honetan, bi pertsonaia hauek jabetza anitzeko eta eragin nabarmeneko tokian tokiko aristokraziaren kideak izango ziren kargu erlijiosoak erabiliko zituztenak bere botere sendotzeko. Hori dela eta, apezpikutzat onartuak izateko prestigio eskuratuko zuten eta, hala, nolabaiteko

jurisdikzioa eta boterea. Botere hori egoitza batean formalizaturik ez egotearen ondorioz monastegietan oinarrituko ziren (1999: 172-173). Gainera, 812ko San Salvador monastegiaren fundazioan konfirmatzaile bada, baliteke Kintilak Oviedoko gortearekin harremanak edukitzea zein bertako bileretan parte hartzea.

2.3. Kintilaren eta Valpuestako dossierren arteko alderaketa:

Behin bi dossierrak aztertuta, elkarren arteko elementu komunak aurki ditzakegu haien arteko koherentzia argia erakusten digutenak. Alde batetik, analizatu ditugun bi kasuetan apezpikuen eta monastegi baten arteko lotura aurkitzen dugu. Valpuestaren adibidean Santa Maria monastegiari loturiko apezpikuen segida bat aurkitzen dugunez, apezpikutzat hartzen dugu. Hala ere, Fistleseko San Vicente monastegiari loturik, ordea, apezpiku bakar baten berri daukagu. Horrela, Kintila edo Antonioren aipamen isolatuek jarraipenik ez duten arren, monastegi zehatz bati eta bere ondareari lotuak daude, beraien boterea eragin erregional nabarmeneko zentro monastiko batean oinarriturik gauzatu zuten neurrian. Hori dela eta, ezin ditugu alde batetik beste batera noraezean ibiliko ziren apezpikutzat hartu. Castellanos eta Martín Visok (2005: 27–28) esaten duten moduan, monastegiak garai honetako garaile handienak dira, komunitate landatarren bizimodura egokitzeko gaitasun handiena erakusten dutenak. Orduan, apezpikuak hauetan oinarritu eta beraien boterearen zentro bezala erabiliko zituzten.

Monastegien eta apezpikuen arteko lotura dela eta, Fernández Condek aipatzen du pertsonaia hauek apezpiku-abadeak direla, hau da, arlo sakramentalean apezpiku funtzioa betetzen badituzte ere, ez dira oso ezberdinak monastegien buruan aurkitzen ditugunekiko. Valpuesta bera ez du onartzen apezpikutzat edo diozesizat, baizik eta monastegizat eta, haren ustez, apezpiku bezala beraien burua aurkezten duten pertsonaiak bertako abadeak izango ziren (2008: 261-262, 352-353). Dena den, apezpikua eta abadea pertsona berean bat egitea ez da Iberiar Penintsularen iparraldera mugatzen den fenomeno berezia. Izan ere, Europako testuinguruan ere aurkitzen dugu, bereziki VIII. mendean, apezpiku eta abadearen funtzioak aldi berean betetzen zituzten pertsonak edo monastegi baten buruan egon eta apezpiku bezala jarduten zutenak. Irlandan, non komunitate monastikoek nagusigoa zeukaten, nabarmena da “apezpiku monastikoaren” figura. Honek ez zuen diozesi zirkunskribaturik eta komunitatean bizi zen gidaritza espiritualaren eta kleroaren ordenazioaren ardura hartuz. Hala, hau ez zen halabeharrez abadea izan behar. Halakoak ere aurkitzen ziren Frankoen Erresuman (Attignyko 762ko sinodoan abade, apezpiku eta bi rola konbinatzen zituztenak bereizten dira), batez ere

misiolarien jarduna jaso zuten lekuetan non diozesi-antolaketa oraindik ez zegoen finkatua, adibidez Lobbesen (De Jong, 1995: 627-629). Beraz, ez litzateke komenigarria izango ikuspuntu kanonikotik bereizketa hertsia egitea. Izan ere, apezpikuak monastegietan oinarritzen dira inguruko komunitateetara beraien eragina zabaltzea ahalbidetzen dien harreman-sare bat artikulatzeko gai diren heinean. Logika horren barnean aurkitzen ditugu presurak.

Izan ere, bi dossierretako dokumentazioan ere menpeko espazio bat eraikitzeke tresna garrantzitsua da presura. Figura juridiko hau, elizen eraikuntza eta konsagrazioarekin batera, apezpikuei komunitateetako egituraketa sozio-ekonomikoan barneratzeko aukera ematen dien mekanismoa da. Presuraren erabilera askoz argiagoa da Valpuestaren adibidean San Vicente monastegian baino, azken honen ondarea pertsonaia ezberdinek izaera aristokratiko nabarmenagoa duen dohaintzan emandako villa eta eliz ezberdinen zerrendaketaren bitartez osatzen baita. Haatik, azpimarratu behar dugu Sisenandoren eta Gudugiaren 811ko dohaintzan emandako jabetzak, zeinen artean San Vicente monastegia bera aurkitzen den, presuren bitartez lortu zituztela.

Honek apezpikuaren boterearen lurraldetasunaren arazora eramaten gaitu. Martín Visok “lurraldetasun lausoa” kontzeptua erabiltzen du apezpiku hauen ekintza-esparruaren zehaztasun eza eta bere muga ilunak adierazteko. Haren arabera, prelatuek bere boterea gauzatuko zuten batez ere bere ekintzaren oinarria den gune zentrolean eta, bertatik kanpo, lausotuz joango zen beste botere-guneekin talkan sartuz. Hala, IX. mendean monastegiak ziren apezpikuen botereari mugak ezarriko zizkietenak. XI. mendetik aurrera, aldiz, diozesi-maparen antolaketa gauzatzen denean, lurraldetasuna definitu eta apezpikuek monastegien gainean beraien autoritatea ezartzen dute (1999: 179–190). Hala ere, eragin-esparruaren nondik norakoak zehaztea zaila bada ere, iturriek erakusten dituzten gabeziei atxikitu diezaiekegun arazo bat izango litzateke. Hau da, apezpikuen ekintza-esparruak bere logika espaziala izango zuen eta garaikidek haren mugak ezagutuko zituzten, Joanen presurei buruz ari ginela azpimarratzen genuen kontzientzia espazial horretan argi islatuko zena. Beraz, benetan lausoa izango zena ez litzateke lurraldetasuna bera izango, baizik eta horren gaineko gure ulermena. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi espazioaren gaineko kontrola lortzeko monastegi eta apezpikutzen arteko talkarik egongo ez zenik (919an Valpuesta eta Santoñako Santa Maria del Puertoren arteko auzian bezala) edota, Martín Visok dioen moduan, hauek ez zirela saiatuko monastegien gaineko kontrol efektibo handiago bat ezartzen, batez ere

kontrolpeko eremuetan edo eragin-esparruan. Honen adibide argia da Diego I. Valpuestako apezpikuaren Orbañanoseko San Joan monastegiaren erregela konfirmatzearen ekintza 900ean.

Azpimarratzekoa da ere bi adibideetan antzematen den apezpikuen eta hauen eskualdeetako kondeen arteko lotura. Hau Kintilaren kasuan agerikoagoa da Gundesindo kondearekin senidetasun-harreman posible batez hitz egin dezakegulako. Gundesindoren botere kondalaren erreferentzia markoa ez dago zehaztua baina, bere jabetzak ikusita, Trasmiera aldean izango zuen bere eragin-esparrua, Gaztela iparraldera ere zabalduko zena. IX. mendeko dokumentazioak erakusten du unitate politikoen aniztasunaren barnean kondeek duten paper garrantzitsua, hauek mendearen bigarren erdialdeko lurraldearen antolaketaren aktoreak baitira. Castellanosen eta Martín Visoren arabera, hauek hirien inguruko zein tokian tokiko aristokrazietatik eratorriko ziren. Hauek botere zentralaren desagerpenaren ostean ahuldu baziren ere, formula politiko berria eraikitzeko gai izan ziren, gero konderrietan kristalizatu zena. Hauen artean Lantaroneko konderria aurkituko genuke non Valpuesta aurkitzen den (2005: 36–38). Hala, kondearen boterea apezpikuentzat erreferente eta beraien boterearen gauzapenerako euskarria izango litzateke. Apezpikutzak, aldi berean, tokian tokiko talde aristokratikoen ekintza eta identifikaziorako marko izango ziren (Martín Viso, 1999: 178-179). Beraz, kondeen eta apezpikuen arteko hartu-eman batez hitz egin beharko genuke, hots, elkar-eragin batez. Honakoa lurraldearen kontrolerako ezinbestekoa den justiziaren administrazioan gauzatzen da.

3. Ondorioak:

Valpuestako apezpikutzaren eta Kintilaren dossier dokumentalen azterketak inbasio musulmanaren osteko apezpikuen problematikan murgiltzeko aukera eskaintzen digu. Esan bezala, garai honetako eliz eta monastegietako dokumentuek tokian tokiko apezpikuen aipamenen aniztasuna erakusten digute eta eskualde mailako presentzia hori, pertsonaia beharrezkoak direlako adierazle da, hain zuen ere. Izan ere, apezpiku dignitatea onartzen zaien pertsona hauek gai dira goi mailako Eliz-autoritateek bakarrik bete ditzaketen ekintzak burutzeko, eliz landatarren zein monastegien gainera kokatuz. Zentzu honetan Kintila eta Antonio apezpikuak Kantabrian jarduten aurkitzen ditugu edota Valpuestan apezpikutza bat finkatzen da. Hori dela eta, Pastorek edo Martín Visok defendatzen duten bisigodoen egoitzen jarraikortasunaz gain, Iberiar Penintsulako iparraldeko Goi Erdi Aroko apezpiku hauek, efimeroak zein iraunkorrak, beraien autoritateaz nahiz presurez baliatuko ziren harreman-sare eta eragin-esparru bat eraikitzeko. Beraz, lurralde proiektio bat duten botere erregionalak izango ziren, garaiko gizartearen ereduarekin bat datozenak eta lurralde logika propioa eta autonomia dutenak. Hori dela eta, VIII. mendearen hasieran botere zentralaren desagertzea Eliz-antolaketa desartikulatu bazuen ere, apezpikuak autonomia bat garatzera iritsiko dira, beste botere zentral berri batzuek X. eta XI. mendeetan diozesi-antolaketa berria finkatzen duten arte.

Ondorioz, Goi Erdi Aroko prelatuen ezaugarri eta baldintzen azterketa honek bultzatzen gaitu kronologia hauetarako apezpikuaren figuraren inguruan hausnartzera. Horrela, apezpikua apezpiku-funtzioak betetzen dituen izango zen eta ez, halaber, diozesi baten buruan dagoena. Modu berean, nahiz eta egia den zaila dela zentzu hertsian diozesi kanonikoei buruz hitz egitea, bai, ordea, hitz egin dezakegu monastegi batean bere zentroa duen apezpiku baten eragin-esparruetaz. Horretaz gain, ikusi dugun moduan, monastegiaren inguruan eratutako ekintza- eta botere-esparru horrek bere logika espazial autonomia edukiko luke. Horrela, autore ugari diozesiei buruz (zein apezpikuei buruz ere) hitz egitea ukatzen badute ere, egoitza baten inguruan antolatutako prelatu baten eragin-esparru baten aurrean aurkitzen garenez, apezpikutzez hitz egitea ontzat har daitekeela uste dugu.

Bibliografía:

- Azkarate, A. & García Camino, I. (1996). *Euskal Herriko Erdi Aroko hilerri eta inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo.
- Carriedo Tejado, M. (2002). “Cronología de los obispados de Castilla en los siglos VIII-X (Osma-Muño, Veleja-Valpuesta y Oca-Burgos)”, *Edad Media. Revista de Historia* 5: 69–116.
- Castellanos, S. & Martín Viso, I. (2005). “The local articulation of the central power in the north of the Iberian Peninsula (500-1000)”, *Early Medieval Europe* 13: 1-42.
- De Jong, M. (1995). “Carolingian monasticism: the power of prayer”, in *The new Cambridge Medieval History II (700-900)*, ed. McKitterick, R., Cambridge, 622-653.
- Díez Herrera, C. (1994). “Las actividades del abad Gisando: un modelo de organización del espacio en la Castilla de Alfonso III”, in *La época de Alfonso III y San Salvador de Valdediós*, ed. F. J. Fernández Conde, Oviedo, 165-185.
- Ernesto, P. (1996). *Castilla en el tránsito de la antigüedad al feudalismo: poblamiento, poder político y estructura social. Del Arlanza al Duero (siglos VII-XI)*, Valladolid.
- Fernández Conde, F. J. (2008). *La religiosidad medieval en España, Alta Edad Media (siglos VII-X)*, Madrid.
- Floriano, A. C. (1949). *Diplomática española del periodo Astur, estudio de las fuentes del Reino de Asturias (718-910)*, Oviedo.
- García González, J. J. (2004). “Valpuesta y su entorno en época tardoantigua y protomedieval”, *Estudios Mirandeses* 24: 25-212.
- Larrea, J. J. & Pastor, E. (2012). “Alaba wa-l-Qila: la frontera oriental en las fuentes escritas de los siglos VIII y IX”, in *Asturias entre visigodos y mozárabes*, eds. L. Caballero Zoreda, P. Mateos Cruz and C. García de Castro Valdés, Madrid, 307-327.
- Larrea, J. J. (2007a). “Construir iglesias, construir territorio: las dos fases altomedievales de San Román de Tobillas (Álava)”, in *Monasteria et Territoria. Elites, edilicia y territorio en el Mediterráneo medieval (siglos V-XI)*, eds. J. López Quiroga, A. M. Martínez Tejera, and J. Morín de Pablos, Oxford, 321–36.
- Larrea, J. J. (2007b). “La herencia vasca: acción política y arquitectura social en Vizcaya y Álava antes de su incorporación al reino de Alfonso VI”, in *Alfonso VI y su época. I. Los precedentes del reinado (966-1065)*, eds. E. Fernández González y J. Pérez Gil, León, 69-119.
- Mañaricua, A. E. (1964). *Obispado en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria: 28 de abril de 1862*, Vitoria.

- Martín Viso, I. (1999). “Organización episcopal y poder entre la Antigüedad Tardía y el Medioevo (siglos V-XI): las sedes de Calahorra, Oca y Osma”, *Iberia: Revista de la Antigüedad* 2: 151-190.
- Martínez Díez, G. (2004). “El obispado de Valpuesta, 881-1087”, *Estudios Mirandeses* 24: 229-252.
- Peña, E. (1993). “Las presuras y la repoblación del valle del Duero: algunas cuestiones en torno a la atribución y organización social del espacio castellano en el siglo IX”, in *Repoblación y reconquista. Actas del III Curso de Cultura Medieval, Aguilar de Campoo, 1991*, Aguilar de Campoo, 249-259.
- Ripoll, G. & Velázquez, I. (1999). “Origen y desarrollo de las *parrochiae* en la Hispania de la Antigüedad Tardía”, in *Alle origini della parrocchia rurale (IV-VIII sec.). Atti della giornata tematica dei Seminari di Archeologia Cristiana (École Française de Rome, 19 marzo 1998)*, eds. P. Pergola y P.M. Barbini, Città del Vaticano, 101-165.
- Ruiz Asencio, J. M. (2004): “Los cartularios de Valpuesta”, *Estudios Mirandeses* 24: 354-381.
- Ruiz Asencio, J. M., Ruiz Albi, I. & Herrero Jiménez, M. (2010). *Los becerros gótico y galicano de Valpuesta*, Burgos.
- Ruiz de Loizaga, S. (2004): “Obispos que regentaron la diócesis de Valpuesta”, *Estudios Mirandeses* 24: 253-290.
- Sáez, E. (1987). *Colección documental del archivo de la catedral de León (775-1230), I (775-952)*, León.

Eranskinak:

1. Dossierretako dokumentuen regesten taulak:

1.1. Valpuestako dossierra:

ARTXIBOA	EDIZIOA	DATA	REGESTAK
Valpuestako Santa Maria	BV 1	804	Joanek, Valpuestako lehen apezpikuak, bere gasalianekin batera Ama Birjinari zuzenduriko hutsik zegoen eliza batean egoitza sortu eta, inguruko lurraldeetan presurak egin eta gero, lorturiko eta eraikitako jabetzak dohaintzan ematen dizkiete egoitzari eta bertako familiari.
	BV 3	864	Elduara eta bere seme-alabek Erretes Tudelako Santa Maria elizari hainbat jabetzaren dohaintza egiten diote, horien artean aitak presuren bitartez lorturikoak eta Elduararen heredentziaren bosten bat.
	BV 4	865	Sonnak eta Muninak San Kosme eta San Damian monastegiarekin paktua egiten dute bikotea monastegiko komunitatearekin urte batez bizitzeko eta hainbat jabetza ematen dizkiote.
	BV 5	875	Emerito presbiteroak San Kosme eta San Damian monastegiari lurrak, mahastiak, errota eta liturgia-liburuen kopuru garrantzitsu bat dohaintzan ematen dizkio.
	BV 6	894	Fredulfo apezpikuak presuren bitartez Vallambrosan eraiki zuen San Roman monastegiari hainbat jabetza dohaintzan ematen dizkio.
	BV 7	900	Guisando presbiteroak bere gasalianekin batera Orbañanoseko San Andres Apostolu eta San Juan Bautista monastegiari inguruko hainbat eliz, lurrak eta beste jabetza dohaintzan ematen dizkiote. Gisando komunitate horretako abade izendatzen dute eta komunitateko bizimodua arautzeko paktua egiten dute.
	BV 9	903	Zejanok eta Valeriak bikoteak Gemelori lur bat eta Gottlen (Quejo) zituzten hamabi sagarrondo saldu zizkioten. Erosketa hori ordaintzeko dirua Analso presbiteroak San Ziprianoren elizako kutxatik atera zuen eta bere lehengusinari eta Gemelori eman zion.

	BV 10	911	Gabineako (Urduña) Donemiliaga elizan ospaturiko Tello Valpuestako abadearen eta Analso eta Sibero presbiteroen arteko auzian, lau pertsonen zinpean lekukotzan esaten dute Analsok Valpuestari eta Felmiro apezpikuari bere burua eta bere jabetza guztiak eman zizkiela, trukean orube bat jasoz. Presbiteroek testigantza hori onartzen dute eta beraien buruak zein beraien jabetzak egoitzari eta Felmiro apezpikuari ematen dizkiote.
	BV 11	919	Espejon ospaturiko Valpuestaren eta Santa Maria del Puertoko elizaren arteko auzian, bi lekukoek testigantzan esaten dute Fenesterio presbiteroak San Martin eliza eta irabazitako eta ondorengotzaz jasotako beste jabetza batzuk Valpuestari eman zizkiola.
	BV 17	939	Liziniano hil zenean lurperatua izateko hil-jantzirik ez zuenez, auzokideak Seberori Lizinianoren ondorengotza bat eman zioten eta harekin erosi zizkion hil-jantziak.


1.2. Kintila apezpikuaren dossierra:

ARTXIBOA	EDIZIO ZENBAKIA	DATA	REGESTAK
Siloseko Santo Domingo ⁵	DA 23	811	Gudugia eta Sisenando abadeak Fistoleseko San Vicente eta San Kristobal monastegiari monastegia bera eta inguruko beste villa batzuk dohaintzan ematen dizkiote, zeintzuk presuren bitartez eskuratu zituzten.
	DA 25	816	Gundesindo kondeak Fistoleseko San Vicente eta San Kristobal monastegiari hainbat villa, eliza eta monastegiren dohaintza zabala egiten dio eta bertan lurperatua izateko nahia adierazten du.
	DA 29	820	Kintila apezpikuak eta bere arreba Subildik Fistoleseko San Vicente eta San Kristobal monastegiari villa eta monastegi batzuen dohaintza egiten diote.
Oviedoko San Salvador	DA 24	812	Alfontso II.ak Asturiaseko erregeak Oviedoko San Salvador elizaren emanaldi fundazionala egiten du.

⁵ Fistoleseko monastegiko dokumentuak pergamino beran bat eginda kopiatu ziren Oñan eta, ondoren, "Caxon de Liencres" delakoan gorde ziren. Geroago, kopiatuak izan ziren, baina pergamino originala galdu zen. Perez de Ubelen arabera, berak eta, gero Florianok, ematen dituzten dokumentuak Liciniano Saezek kopiatu eta Silosen gorde zen kopia batetik ateratak daude (Floriano, 1949: 117-118).


2. Mapak:

2.1. Joan apezpikuaren presurak:



Lokalizazioa: Peña (1993) eta Ruiz Asencio et al. (2010)

2.2. Fistoleseko San Vicente monastegiari egindako dohaintzak:



Lokalizazioa: Peña (1993)